

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK**  
**EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETAKO AZTERKETA**  
**2008/2009 IKASTURTEA**

**ARGIBIDE OROKORRAK ETA BALIOESPENA**

1. Proban bi aukera (A eta B) emango dira eta horietatik bat hautatu beharko duzu.
2. Hautatu duzun A edo B aukerako galderei erantzun soilik. Behin aukera bat hautaturik, soilik balioetsiko dira aukera horretan erantzun dituzun galderak.
3. Atal bakoitzean adierazten da lor daitekeen puntuazioa.
4. Erantzun guztiak erantzun-koadernoan idatzi behar dira, ez enuntziatuan.
5. Proba teorikoko erantzunak hurrenkeran eta bi zutabetan idatzi behar dira koadernoaren lehen orrialdean. Lehen zutabean, lehen hamar galderen erantzunak jarriko dira, eta, bigarreanean, berriz, azken hamar galderenak.

**A AUKERA**

**A) PROBA TEORIKOA**

**Erantzunetatik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0'3. Erantzun okerra: -0'1. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.**

1. Ekonomiaren ikuspuntutik, enpresaren oinarrizko funtzioa honako hau da:
  - a) Erabilgarritasuna eta balioa sortzea.
  - b) Ondasunak eta zerbitzuak lortzea.
  - c) Mozkina maximizatzea.
2. Ekipamendu-ondasunak honelako baliabideak dira:
  - a) Fisikoak.
  - b) Finantzarioak
  - c) Ukiezinak
3. Lan-sozietatea hau da:
  - a) Sozietate pertsonalista.
  - b) Sozietate kapitalista.
  - c) Ekonomiako sozialeko enpresa.
4. Integrazio bertikalaren abantailetakoa bat honako hau da:
  - a) Transakzio kostuak aurrezteak.
  - b) Kudeaketa kostuak aurrezteak.
  - c) Espezializazio handiagoa.
5. Opilak egitea erabakitzen duen irin-ekoizle bat honako honen adibidea da:
  - a) Aurreranzko integrazio bertikala.
  - b) Atzeranzko integrazio bertikala.
  - c) Askotarikitze harremanduna.
6. Kontabilitatea baliabide hauetan arreta jartzen duen zientzia da:
  - a) Ekonomia-baliabideak.
  - b) Giza-baliabideak.
  - c) Antolamendu-baliabideak.

7. Honako hau da ondarearen zati negatiboa

- a) Ondasunak.
- b) Eskubideak.
- c) Betebeharrak.

8. Ekoizpen-ekipamenduak ordezkatzeko inbertsioa bat honelako inbertsioa da:

- a) Finantzarioa.
- b) Produktiboa.
- c) Epe laburrekoa.

9. Epe luzeko inbertsioak honako hauetako elementuak erosteko egiten dira:

- a) Aktibo korrontea.
- b) Aktibo ez korrontea.
- c) Ondare Garbia.

10. Finantzaketak:

- a) Kostu espiizitua dauka beti.
- b) Inbertsioarekin lotura dauka beti.
- c) Ez dauka eraginik enpresaren ekonomia eta finantza orekan.

11. Merkataritzako deskontua honelako finantzaketa da:

- a) Funtzionamendukoa.
- b) Epe laburrekoa.
- c) Heltzearen batez besteko aldia luzatzen duena.

12. Obligazioen jesapen batean:

- a) Tituluak errenta aldakorrekoak dira.
- b) Jaulkipen-preziora tituluan agertzen den zenbatekoa da.
- c) Obligazioek hainbat mugaegun izaten ahal dituzte.

13. Prozesu mekanikoetan:

- a) Gizakiek eta makinek batera egiten dituzte lanak.
- b) Gizakiaren parte-hartzea kontrolera mugatzen da.
- c) Gizakiak indar fisikoa ematen du.

14. PERT metodoa eginkizun hauetan erabiltzen da:

- a) Proiektuak kontrolatzeko.
- b) Inbentarioak kudeatzeko.
- c) Ekoizpen-kopuru optimoa kalkulatzeko.

15. Produktu-zorroa:

- a) Homogeneoak diren eta elkarrekin oso lotuta dauden produktuen multzo bat da.
- b) Produktu-lerro bat edo batzuk izaten ahal ditu.
- c) Marketineko aldagai kontrolaezina da.

16. Adina honelako segmentazio-irizpidea da:

- a) Objektiboa.
- b) Soziologikoa.
- c) Kontsumitzeko portaerarena.

17. Enpresa bateko esportazio-saileko zuzendaria atal honetako kidea da:

- a) Goi-mailako zuzendaritza.
- b) Bitarteko zuzendaritza.
- c) Zuzendaritza operatiboa.

18. Elkarren arteko egokitzapenak honela lortzen du koordinazioa:

- a) Zuzeneko harreman hutsaren bidez.
- b) Azken emaitza zehaztuz.
- c) Pertsona bati gainontzekoen lanaren ardura emanez.

19. Zereginaren barietatea eta identitatea lotuta daude motibazio honekin:

- a) Kanpokoa.
- b) Barnekoa.
- c) Garrantzizkoa.

20. Sektore bateko lehiaren indarra handiagoa izango da, baldin eta:

- a) Lehiakide gutxi baldin badaude.
- b) Merkatua trabatuta baldin badago.
- c) Sartzeko hesiak baldin badaude.

## B) PROBA PRAKTIKOA

### LEHEN ARIKETA

(GEHIENEZ ERE: PUNTU 1)

Pertsona batek 15 milioi euro ditu inbertitzeko. Hainbat finantza-aholkulariri kontsultatu ondoren, lau inbertsio-aukera aurkeztu dizkiote. Guztietan 15 milioi euro jarri beharko lirateke hasieran. Hurrengo taulan agertzen dira lau proiektuetan espero diren kutxa-fluxuak (milioi eurotan).

PROIEKTUA	1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA	4. URTEA
A	7	5	10	5
B	10	2	2	5
C	10	5	1	1
D	3	10	10	5

Kapital-kostua % 10 bada, ordenatu inbertsio-proiektuak balio eguneratu garbiaren metodoaren arabera. Froga ezazu.

Ordenatu proiektuak, baita ere, errekupeazio-epearen irizpidearen arabera. Froga ezazu.

Oharra: bi hamarrenekin biribildu zifrak.

**BIGARREN ARIKETA (GEHIENEZ ERE: 3 PUNTU)**

Honako hauek dira Etxalekua enpresak 2008ko abenduaren 31n dituen kontuen saldoak eurotan:

Zerbitzu-prestazioengatiko hartzekodunak	9.000
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	10.000
Kutxa	10.000
Kapital soziala	¿?
Bezeroak	10.000
Epe laburreko zorrak	7.000
Epe luzeko zorrak	63.000
Zordunak	10.000
Garraio-elementuak	43.000
Informazioa prozesatzeko ekipoak	40.000
Salgaiak	20.000
Ekitaldiko emaitza (1)	¿?
Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak	7.000
Legezko erreserba	4.000

Ustiapen-sarrerak 11.500 € izan ziren 2008an, eta ustiapen-gastuak 4.200 €.

Finantza-gastuak kalkulatzeko dira jakinik zorraren batez besteko interes-tasa % 7 izan dela urte horretan.

Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 35 da.

**(1)** Idatzi Ekitaldiko emaitza lortzeko egin diren kalkuluak.

- Idatz ezazu Egoera Balantzea, ondare-masen arabera sailkatua, eta ordenatu Aktiboa likidezia txikienetik handienara, eta Ondare Garbia eta Pasiboa galdagarritasun txikienetik handienara. **(1,75 puntu)**
- Azter ezazu enpresaren finantza-egoera, erabilitako ratioak aipatuz. Interpretatu itzazu lorturiko emaitzak. **(1,25 puntu)**

OHARRA: bi hamarrenekin biribildu zifrak.

**B AUKERA**

**A) PROBA TEORIKOA**

**Erantzunetik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0'3. Erantzun okerra: -0'1. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.**

1. Antolatzeko gaitasuna honelako baliabidea da:

- a) Giza baliabidea.
- b) Ukigarria.
- c) Ukiezina.

2. Enpresa honelako sistema da:

- a) Itxia.
- b) Erdi-irekia.
- c) Berrelikadura duena.

3. Lehendik dauden asmakuntzak praktikan jartzeari honela deitzen zaio:

- a) Berrikuntza.
- b) Ikerketa.
- c) Imitazioa.

4. Schumpeter-ek enpresaburu kontzeptua ideia honekin lotzen du:

- a) Arriskua.
- b) Teknoegitura.
- c) Berrikuntza.

5. Bezeroek produktua gehiago erabil dezaten ahalegintzea estrategia-mota hau da:

- a) Merkatuak garatzea.
- b) Askotarikotze harremanik gabea.
- c) Merkatuen txertatzea.

6. Hortzetako eskuilak eta pasta egiten dituen enpresa bat honako honen adibidea da:

- a) Askotarikotze harremanik gabea.
- b) Askotarikotze harremanduna.
- c) Integrazio bertikala.

7. Kontu batean, ondare-elementuaren balioari honela deitzen zaio:

- a) Titulua.
- b) Saldoa.
- c) Anotazioa.

8. Etorkizuneko kapitalen gutxietsien printzipioak adierazten du diruak:

- a) Balioari eusten diola denborak aurrera egin ahala.
- b) Balioa galtzen duela denborak aurrera egin ahala.
- c) Balioa irabazten duela denborak aurrera egin ahala.

9. Autofinantzaketa honelako baliabidea da:

- a) Epe laburrekoa.
- b) Kanpoko.
- c) Barnekoa.

10. Merkataritzako deskontuan:

- a) Ez da egoten komisiorik.
- b) Balio izenduna benetako balioa baino txikiagoa da.
- c) Deskontua epemugara iristeko falta diren egunen araberakoa da.

11. Akzioek:

- a) Epemuga txikiagoa dute obligazioek baino.
- b) Eskubidea ematen dute sozietatearen kudeaketan parte hartzeko.
- c) Errentagarritasun periodiko eta konstanteak dituzte.

12. Produkzio malguan:

- a) Produktu-aukera zabal baten bolumen txiki bat fabrikatzen da.
- b) Produktu-barietatea txikia da.
- c) Langileen espezializazio-maila handia da.

13. Alderantzizko ingeniari-tza honako hau da:

- a) Teknologia imitatze-ko jarduera.
- b) Berrikuntzak babesteko jarduera.
- c) Industria-espioitzako jarduera.

14. Honako baieztapen hauetatik, esan zein den faltsua:

- a) Kostu marjinalaren kurba batez besteko kostu aldakorraren kurbako beheko puntutik igarotzen da.
- b) Kostu marjinalaren kurba batez besteko kostu osoaren kurbako beheko puntutik igarotzen da.
- c) Batez besteko kostu finkoaren kurba gorantz doa kopuruarekin.

15. Lehia perfektuan:

- a) Enpresak aukeratzen du zein prezioan salduko duen bere produktua.
- b) Enpresak aukeratzen du salduko duen kopurua.
- c) Orekan kostu marjinala sarrera marjinala baino txikiagoa da.

16. Honako hauen arte-rik, esan ezazu zein ez den merkataritzako sustapenaren tresna bat:

- a) Segmentazioa.
- b) Marketin zuzena.
- c) Harreman publikoak.

17. Azken produktuaren kalitate-ikuskapena honelako kontrol-modua da:

- a) Zuzentzailea.
- b) Konstantea.
- c) Aldez aurrekoa.

18. Langile bakoitzak buru baten aurrean baino ez duela erantzun behar diren printzipioari, honela deitzen zaio:

- a) Hierarkia.
- b) Aginte-unitatea.
- c) Lanaren banaketa.

19. Industrian ordainketa-sistema gisa erabiltzen da:

- a) Honenbesteko ordaina.
- b) Salmentagatiko komisioa.
- c) Ekoizpen-sariak.

20. Bereizketan oinarritutako lehiarako estrategia:

- a) Produktuaren ordezkagarritasuna bilatzen du lehiakideekiko.
- b) Kostu handiak sortzen ditu.
- c) Hasieran prezio oldarkorrak jartzea dakar.

**B) PROBA PRAKTIKOA**

**LEHEN ARIKETA**

**(GEHIENEZ ERE: PUNTU 1)**

Pneumatikoak fabrikatzen dituen enpresa baten kostu-egitura hau da:

Lantegiaren alokairua	250.000 €
Suteen aurkako aseguru-poliza	1.000 €
Eskulanaren kostua ordu bakoitzeko	30 €
Material kostua pneumatiko bakoitzeko	40€

Pneumatiko bat fabrikatzeak berrogeita hamar orduko lana dauka. Pneumatiko bakoitzaren merkatuko salmenta prezioa 120 € da.

- Kalkula ezazu errentagarritasun-atalasea.
- Kalkula ezazu zenbat pneumatiko ekoiztu diren, enpresak 10.000 euroko irabaziak izan baldin baditu.
- Irudika ezazu grafikoki errentagarritasun-atalasea, galeren eremua eta irabazien eremua seinalatuz.

**BIGARREN ARIKETA**

**(GEHIENEZ ERE: 3 PUNTU)**

“Leiarrek” izeneko enpresak betaurrekoak ekoizten ditu. Honako hauek dira enpresa horrek 2008ko abenduaren 31n dituen kontuen saldoak eurotan:

Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak	14.000
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	20.000
Bankuetako kontu korranteak	3.000
Kapital soziala	40.000
Bezeroak	9.000
Eraikuntzak	39.000
Epe laburreko kredituak	7.000
Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak	7.000
Makineria	92.000
Lehengaiak	3.000
Ekitaldiko emaitza (1)	¿?
Produktu bukatuak	9.000
Jabetza industrialak	12.000
Hornitzaileak	14.000
Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak	47.000
Legezko erreserba	¿?

Interesen eta zergen aurreko mozkina, 2008an, 9.720 € izan zen.

Finantza-gastuak kalkulatzeko dira jakinik zorraren batez besteko interes-tasa % 8 izan dela 2008an.

Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 25 da.

**(1)** Idatzi Ekitaldiko emaitza lortzeko egin diren kalkuluak.

- Idatz ezazu Egoera balantzea, ondare-masen arabera sailkatua, eta ordenatu Aktiboa likidezia txikienetik handienara, eta Ondare Garbia eta Pasiboa galdagarritasun txikienetik handienara. **(1,75 puntu)**
- Hurrengo ekitaldi ekonomikoan, enpresak inbertsio bat egin, eta aktiboa 25.000 eurotan gehitu da eta interesen eta zergen aurreko mozkina 11.200 euro izatera iritsi da.

Kalkula ezazu lortzen den finantza-errentagarritasuna, inbertsio berria norberaren baliabideen bidez bakarrik finantzatzen baldin bada.

Kalkula ezazu lortzen den finantza-errentagarritasuna, inbertsio berria bakarrik finantzatzen baldin bada enpresak 2008an zeukan zorraren interes-tasa bereko maileguaren bidez.

Azal ezazu palanka-efektua. **(1,25 puntu)**

**OHARRA:** bi hamarrenekin biribildu zifrak.